

«JAIZKIBEL GERIZPEKO MIXTERIOAK»

Betidanik Jaizkibel mendia mendi mixteriotsutzat eduki dugu, agian bere garaiko basoak direla edo udazkenetik bere magaleetara jeisten zaizkigun laino sendo eta trinkoak direla eta... gauza da Jaizkibel mendia oso garai zeharretatik mixterio tokitzat harturik izan dela gure artean. Garai protohistorikoetan, Oarso-Bidasoa bailaran zehar, baskoi leinukoak ibiltzen zirenean, zenbait mendi hartu zuten beren kosmogoniaren leku sakratutzat: Larrun, Aiako Harria, Jaizkibel,... Eta honela gure mendiaren izena oso loturik gelditu da kosmogonia zahar honekin. Haitza sakratua, agian gaurko Aiako Harria izango zen, xiur aski, eta honekin loturik, urrunago, itsaso alderantz zegoen beste haitza, aurrekoaren gibelean, atzean zegoena HAITZ + GIBEL (= Jaizkibel)

Hiru mendi horiek osaturiko trianguluan, Oarso-Bidasoa izeneko bailaran alegia, baskoi horiek beraien txabolak finkatu zituzten. Hasiera batean baliteke talde horiek nomadak izatea, artaldeekin batera mugitzen zirenak, baina denborarekin eta nekazaritza eta laborantzaren aurrerapenekin batera, beraien bizitokiak aipaturiko triangulu magikoan finkatu zituzten, beraien kosmogoniaren egoitzak ziren hiru mendi horien gerizpean. Ordu ezkerotik bailara magiko-sakratu honen eragina arront nabarmena izan da bertako biztanleriaren izate historikoan.

Gure Jaizkibeli dagokionez, Jaizkibel azpian luzatzen den bailarari, hobeto esanda, esan dezakegu oso fenomeno bitxiak jasan dituela denboretan zehar. Lezoko bailara hontan bazeuden zenbait gune edo ate magiko, gaurko Santo Kristoren basilika dagoen tokia horietako bat zelarik.

Magiko-sakratua zenez, gure arbaso jentilek tenplo bat eraiki zuten, bailara osoan eta baita aldamenekoetan arras famatua eta pelegrinazio tokia izan zena. Bertan, gure kosmogoniaren zenbait jainko edo jainkosei kulto ematen zitzaielarik. Agian Eki berari, edo agian heriotzaren jainkosa zen Ilazkiri,... zeredozer aipatzerakoan.



Errenga, gure arbasoen hilerria

Kristau erlijioaren inposaketarekin batera, gure tenploak birrinduta izan ziren, gure kosmogonia zaharra baztertuta, eta gure bizimodu guztia zeharo aldatuta. Odol putzu batean bukatu ziren gure amets naturistak, eta erlijio berriak ekarri-

tako errazionalismo hotza zabaldu eta nagusitu egin zen gure arbaso zaharren bizi maila guztietan. Ordutik aurrera, beraien logika berriak kanpo gelditzen ziren fenomeno guztiak deabrusutzat, misterioak, fantasmagorikotzat,... harturik izan ziren.

Lezoko ate magiko hori jazten zuen tenploa birrindu egin zuten, eta toki berean fede berriaren, gaurko basilikaren aintzindaria izan zen ermitatxo bat eraiki zuten. Kosmogonia modu traumatiko batez, aldatuak gelditu ziren. Jainko batek besteari kendu zion aldarea, baina ate magikoa hor zegoen, eta hor ere bere indarra eta eragina. Eta honela gure protohistoriaren mende ilun luzeetan zehar peleginazio fokua izan zena, fede berriaren peleginazio fokua bilakatu egin zen garaia historikoetan. Jazkera aldatuak zegoen, baina ez horrela gure herriaren barneko sentikera inkoszienteak.

1.- JAIZKIBEL GERIZPEKO GUNE MAGIKOAK

Garrantzitsuena dugu, zalantzarik gabe, orain arte aipatu duguna, gaurko Lezo herriaren bihotza den plazan kokaturik dagoena. Beti izan da leku sakratua, biltokia, erromesen bidegurutzeta. Gaur bere indarra hor dago, Gurutze Santuaren Basilika osatzen duten lau hormen artean, bere eragina bazter guztietara zabalduz. Honekin batera bazeuden bestelako gune magikoak. Garrantzitsuenetakoa «Zelaiabeltzeta» izeneko zelai ezezaguna dugularik. Aipatzen denez, zelai hau Jaizkibel mendiko itsas magalean kokaturik dago, eta bertan egin dira eta egiten dira gaur egun ere, akelarreak. Inork ez daki zehazki mapaganean kokatzen, eta bakar bakarrik kosmogonia zaharraren gordailu diren zenbait aztik omen dakite non dagoen. Beraiek omen dira akelarreak zuzentzen dituztenak, eta bestelako partaideak gune hortara ezkutuki daramazkitenak, honela zelaia kokapen sekretua iraunaraziz.

Gaurko Antxillastegi Pentsu Kooperatiba dagoen zuloa ere magikoa omen da bestalde. Eta benetan egin dira aintzinatean zenbait erritual. Geroztik zenbait agerpen mixteriotu eman dira bere inguruetan, Gaintxurizketako beste tokietan gertatu den bezalaxe. Itsas magalera berriro itzuliz, jakin badakigu Gaztarrotz, Leuta, Erentzin, (Arranbil lezoarrentzako) izeneko tokietan gauza arras bitxiak gertatu eta gertatzen direla. Arranbil izeneko itsas sarreratik eskubirantz joanda badago beste itsas sarreratxo bat, eta dirudienek haxe da eremu zabal magiko honen atea.

Pixkat urutiago, eta Jaizkibelen gerizpetik urrunduz, eta Aiako Harriarenean sartuaz, badaukagu beste ate magiko garrantzitsua, Arritxulegi pasata, eta Aita Donostiaren Oroitgarritik gertu dagoen «Errenga» izeneko jentilbaratzez jositako zelaian. Irunen antzeko zerbait gertatzen zen gaur Ama Xantalen izena daraman tokian. Gure kosmogoniaren barneko jainko ezezagun baten kulto tokia izatetik, gaurko Santa Elena «Ama Xantalen»-en ermita izatera igaro bait da. Baliteke bizitza eta emankortasunaren ama zen Mari beraren kulto tokia izatea, eta hortik etortzea gaur ematen diogun izen berezia: AMA Xantalen.

Andrearriaga izango litzateke beste gune magikoa, eta bere zelaian txutik altxatzen den hilarria bere eraginaren lekukorik onena. Gure arbasoek leku honi

darion indarra ezagutuz, biltoki eta erabaki bereziak hartzeko lekutzat hartu zuten sarritan, mugarri eta muga istiluei buruzko auziei irtenbidea eman nahian zebiltzatenean esate baterako. Gune edo ate magiko hauen artean indar sare ikustezin bat josi egin da, oso garai zaharretatik beren indarrez gainezkatuz, eta gure izate eta eguneroko ekintza franko indarrezko oreka baten barruan kokatuz eta garatuz.

2.- AGERPEN MIXTERIOTSUAK

Horren bailara berezia izanez, ez dira bat ere harritzekoa, gure artean mendeetan zehar eman diren fenomeno eta agerpen mixteriotuak. Bailara osoan aditzen dira pertsonen edo indarren agerpenetaz mintzatzen zaizkigun kontuak. Sorgin kontuak esaten zaie, mixterioari nolabait adierazpen logikoagoa eman nahian. Baina agerpen guzti horien artean, garrantzi haundiz hartzen dute, Jaizkibelen gerizpean dagoen Gaintxurizketa izeneko eskualde menditsuan azaldutako ontzi hegalariez hitzegiten diguten gertaerek.


Aipaturiko agerpen hauen bolararik garrantzitsuena 50-60eko hamarkada izan zen eta bertan eman ziren agerpenik ugarien eta sonatuenak. Ospetsuenen artean aipa ditzagun 1950eko martxoaren 21ean, bizikletaz zihoazen bi gaztek, Gaintxurizketako gainetik igarotzerakoan jasan izan zutena,... edo 1.954.eko abenduaren 6an, J.M.P. izenekoak ikusi zuena, edo 1.955.eko urtarrilaren 5ean, Uralde baserriaren inguruan, Gerardo Irazusta eta Arrastua anaiei gertatu zitzaizena,... edota urte berean, Gaintxurizketako harrobian lanean ari ziren langileek ikus ahal izan zutena. (Ikusi.- KARLOX BARRENTSORO : "O.H.E."-ak Gaintxurizketan". LEZO-2/1989)

Baina hamarkada hau pasata, ontzi hegalarien agerpenak eten ziren, 1.990 arte. Batzuren ustez, gertatzen ari diren agerpenen ugaritasunean oinarrituz, hamarkada berezi baten hastapenetan omen gaude berriro ere. Eta egia esan, ez zaie arrazoirik falta, 1.990ko urtariletik gaurko egunetaraino makina gauza bitxi gertatzen ari bait dira gure artean, gehien gehienak Jaizkibel mendiko itsas aldean. Bertan dabilen jende askok, mendizalek, "dominguero"-k, artzaiek,... oso gauza arraruak ikusi bait dituzte.

Ilunabar edo egunsenti askotan ikusi omen dira gauza bitxiak itsasotik ateratzen edo bere uretan sartzen, eta murgiltzen begi bistatik galdu arte. Lekuko gehienek diotenez, argiz jantzitako objektuak dira, argiak horixkak edo moreak izaten dira gehienetan, eta intentsitatez guztiz aldakor eta mugikorrak. Objektuen neurriei dagokienez, inork ez daki kalkulatzeko, normalean abaila haundiz eta urruntasunean ikusi bait dira, eta beren dimentsioak argian artean ezabaturik gelditzen direlako. Itxurari dagokienez, gauza bera gertatzen da, baina hala eta guztiz ere, lekuko gehienak bat datoz, borobil antzekoak direla behin eta berriro errepikatzen digutenean. Artzai batzuek diotenez, zahato erraldoi baten tankera omen daukate.

Oso maiz ikusi dira holako agerpenak Azabaratzen, Leutan, Gaztarrotzen, Arranbilen,... eta jendea aho zabalik eta askotan izuturik utziz. Egunetik egunera, itsas azpiko egoitza baten susmoa gizentzen doa. Askotan hitzegin da

holakoetaz, eta asko idatzi ere Jaizkibel aurreko itsas azpiko balizko egoitza batetaz, baina froga haundirik gabe. Orain berriz, etengabeki gure artean ematen ari diren agerpen hauek, itsas azpiko egoitzaren hipotesia gogora dakarkigute.



Badago pertsona bat, egoitzaren sapaia edo antzeko zerbait ikusi duena, edo ikusi duela esaten diguna behintzat. Gizon hau, J.I.A., itsasbelarrak harrapatzen aritzen zaigu Jaizkibeleko harkaitzetan eta berak kontatzen digunez, itsas behe-
ra haundia egin zuen behin, xalabardoarekin sartu omen zen, bestetan, normalean, ur azpian egoten ziren harkaitzetaraino, urrutitik ikusten zituen itsasbelarrak hartzeko asmoz. Bapatean, eta ia leporaino uretan murgildurik zegoenenan, zerbait arrarua ikusi ahal izan zuen bere oina azpian. Harkaitzeko lurra desagertzen zen, amaitzen zen hobeto esanda, leku ez zehatz batetan, metaliko antzeko egitura leun hotz bati hasiera emateko.

Bost metro urrunago gutxi gora behera, forma borobil berezi batzuk, lur metaliko antzeko hortan nabarmentzen ziren, arraultz erdiak ziruditen, baina lurra metaliko horrekin zer ikusterik ez zuen beste materiale batez osaturik zeudenak. Atzera jo zuen, eta harri koxkor bat hartuta, hurbildu zen, ahal izan zuen tokiraino eta bertatik harria jautiki zuen arraultz horietako baten kontra. Kolpatu bezain pronto, argi more mugikor bat piztu zen, ura bere koloreaz argituz. J.I.A. lehorrera abiatu zen korrika eta presaka, eta xalabardoak harkaitz gainean ahaztuz, abiatu zen ziztu bizian bidexka aldera. Behin atzerantz begiratu zuela, beltzez jantzitako gizon burusoil bat ikus ahal izan zuen. Gizon honek eskuarekin berarengana hurbiltzeko egin arren, gure gizonak hanka egiteari ekin zion, handik urruti bere burua sumatu zuen arte.

Ordu ezkerotzik, bi aldiz ikusi omen du gizon hori kalean, eta beste behin deitu omen dio telefonoz eta euskeraz eginez martxoko bigarren hilargi betean, agerpena gertatu zen tokira joateko aginduz.

J.I.A. ez zen agindutako tokira berriro joan eta bazpare itsasbelarrak hartzeari utzi egin dio. Bere ustez, zenbat eta urrutiago askoz hobeto. 1.990ko martxoko hasieran ere, beste agerpen mixteriotsu eta garrantzitsua gertatu zen, baina oraingoa Gaintxurizketa aihekan berriro ere. Orduko prentsak honela kontatzen digu:

"Altamira aldean, Mihura baserriko semea den J.M.L. bazihoan gaueko 5,45etan bere baserri aldera. Bapatean, atzeko aldetik argi baten diztira somatu zuen. Ilargia zelakoan aurrera jarraitu zuen, baina halako batean argia bere gainean sumatu zuen, eta berarekin batera, bere gorputza mugitzeko ezina.

Neurtu ezin zezakeen denboratxo baten ondoren, objetu argitsuaren eragina moteltzen joan zen, eta Jexux Mari bere baitara itzulita, korrika abiatu zen anaiaren baserriko ateraino, argiak, atzetik bere pausuak jarraitzen zituen bitartean”.

Berak objetua gogoratzen duenean, borobil antzeko zerbaitez hitzegiten du, alde guztietatik argi indartsu batez inguraturik zegoena. Berak esaten duenez, putzu batetan harri koxkor bat botatzerakoan, agertzen diren zirkulu konzentrikoen antzerakoak omen zituen bere inguruan. Oroitgarri gisa,erlojua bateriarik gabe gelditu zitzaion aipaturiko ordua gogoraraziz, goizaldeko 5,45ak. Zenbait ikerlariren ustez, Jexux Mariri egin ziotena, garun irakurketa xume bat izan zen, oroimen eta bizitakoen irakurketa alegia.

3.- JAIZKIBELEKO ATE ILUN LAUDIMENTSONALAK

Aurreko atalean ikusi ditugunak ikusiz, garbi dago zer edo zer mixteriotsua, gure gaurko ezagupenetatik kanpo dagoena, gertatzen ari dela gure inguruan. Ontzi hegalarien agerpenak, gune magikoak, kosmogonia zaharra gaur berpizten ari zaiguna, -asko eta asko bait dira Jaizkibelen gaur egiten diren akelarre edo zeremonia bitxien berri ematen digutenak-. Gauza anitz leku zehatz eta mugatu batentzako.

Parasikologiaren munduan mugitzen direnen artean, Jaizkebelekoateetaz hitzegiten da, bere ate ilunetaz,... eta atzetik izkaturik dagoenaz. Hauen ustez, mendi honetan, bai bere magaletan, baita bere kostaldean ere, badaude ate laudimentsionalak, beste mundu edo zibilizazio extralurtarrekin harremanetan jartzeko modukoak. Distantzia eta denboraren bidezigorak diren ate ilunak. Beraietaz baliatzen omen dira gure bisitariak beraien urrutiko izarbeletatik gureganaino joan eta etortzeko. Ate hauek nolabaiteko bidezidorrak dira, distantzia eta denbora izugarri laburtuz, urrutiko munduen arteko zubiak eraikitzen dituztenak.

Honela balitz, gure kosmogonia zaharren zenbait sinismen, errito, kontae-rak,... gizaki hauek gure arbasoei transmititutako filosofia bereziaren oinarriak izanen lirateke, bizitzeko mezua azken finean. Horixe bait da azken batean, holako gauzak arruntak edo mixteriotsuak egiten dituen,... bizitza ikusteko darabilkigun lentearen kolorea. Irudimena, gure artean ematen diren gertakizunak interpretatzeko moadu bat da. Eta interpretatzeko mdu asko daudenez, irudimen mota asko daudela esan genezake. Zoritxarrez, gure gaurko zibilizazio honek irudimen zehatz eta bakar bat hartu du errealitate bera bailitzan, beste irudimen mota guztiei ateak ixten, baita Jaizkibeleko ate ilunei ere. Eta horrela zenbait gauza mixteriotsu, bitxia... bilakatu zaizkigu. Mixteriotsuena, bitxiarena, gaur errealtzat eta egi bakartzat erabiltzen dugun logika mendebaldearra besterik ez denean.

— ZABARRE —